


Eraikuntzaren kostuek Euskal AEn % 0,2 egin dute gora 2021eko ekainean, aurreko hilaren aldean

Aurreko urteko hil berarekin alderatuta, 2021eko ekaina 2020ko ekainarekin, kostuek % 2,5 egin dute gora

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizeak % 0,2 egin du gora 2021eko ekainean, aurreko hilarekin alderatuta, EUSTATEk emandako datuen arabera. Urte arteko terminoetan, kostuek % 2,5 egin dute gora.

Eraikuntzaren sektoreko kostuek % 0,3 egin dute gora hil arteko terminoetan, eta Obra zibilekoek % 0,1 egin dute behera. 2020ko ekaina dela eta, prezioen aldakuntza % 2,6 igo da Eraikuntzaren kasuan eta % 2,4 Obra zibilaren kasuan.



Aurreko hilaren aldean, **lehengaien** kostuek % 0,3 egin dute gora, eta **eskulanaren** kostuak egonkor dirau (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaiak % 2,7 egin dute gora, eta eskulanak, % 1,9.

Aurtengo ekainean, Eraikuntzaren sektoreak hil artean % 0,4ko igoera izan du lehengaien kostuan; Obra zibilaren kostuak, berriz, % 0,2 egin du behera. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuek % 2,8 egin dute gora, eta Obra Zibilekoek, % 2,5.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntzatasak(p). 2021ko ekaina

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	108,7	0,2	2,5
Eraikinak	108,9	0,3	2,6
Obra zibila	107,8	-0,1	2,4
LEHENGAI	108,2	0,3	2,7
Eraikinak	108,4	0,4	2,8
Obra zibila	107,0	-0,2	2,5
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Igoera handienak izan dituzten sektoreek kontsumitutako lehengaien prezioen artean, 2021eko ekainean, 2020ko ekainaren aldean, nabarmentzekoak dira honako sektore hauek: *Petrolio fintzea* (% 31,1eko igoera), *Metalurgia* (% 22,8ko igoera) eta *Material elektrikoa* (% 13,9ko igoera). Murritzaketak izan dituzte prezioetan, berriz, *Mineral ez metalikoen* (% 3,1 egin du behera) eta *Kautxuaren eta plastikoen* (% 0,1 egin du behera) sektoreek.

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021ko ekaina

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-3,1
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	9,0
10 - Petrolio fintzea	31,1
11 - Industria kimikoa	6,3
13 - Kautxua eta plastikoa	-0,1
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	1,6
15 - Metalurgia	22,8
16 - Metalezko artikulak	2,4
17 - Material elektronikoa	13,9
18 - Material elektrikoa	2,4
19 - Makineriaren fabrikazioa	1,3
22 - Altzarigintza	2,2
24 - Energia elektrikoa eta gasa	3,5

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62